

ERABAKIA, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREARENA, 2019., 2020., 2021. ETA 2022. URTEETAKO LAN ESKAINTZA PUBLIKOEI DAGOZKIEN HAUTAKETA PROZESUETAKO ESLEIPENDUNAK KARRERAKO FUNTZIONARIO EDO LAN KONTRATUDUN LANGILE FINKO IZENDATZEKO DENA.

Errektorearen 2022ko urriaren 20ko Erabakiaren bidez Euskal Herriko Unibertsitatean karrerako funtzionarioak/lan kontratudun langile finkoak sartzeko hautaketa prozesuen oinarri orokorrak argitaratzeko agindua eman zen. Hautaketa prozesuok Gobernu Kontseiluaren 2022ko maiatzaren 24ko erabakiaren ondorio dira, erabaki horren bidez onartu baitzen administrazio eta zerbitzuetako langileentzako 2022ko lan eskaintza publikoa eta aldatu 2019., 2020. eta 2021. urteetako lan eskaintza publikoak.

Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2022ko urriaren 20ko erabakien bidez agindua eman zen argitaratzeko administrazio eta zerbitzuetako langileen taldeetarako karrerako funtzionarioak eta lan kontratudun langileak hautatzeko ohiko eta ezohiko prozesuen oinarri espezifikoak.

Aipatutako hautaketa prozesuak bukatuta, prozesu horietako epaimahaien erabakien bidez onartu egin ziren aukeratutako pertsonen eta esleitzeko zeuden lanpostuen behin betiko zerrendak. Halaber, prozesu bakoitzean behin betiko hautatutako pertsonak karrerako funtzionario edo lan kontratudun langile finko izendatzea proposatu zen, eta hogeiei egun naturaleko epea ezarri zen interesdunek aurkez zezaten beharrezko dokumentazioa beren gaitasuna egiaztatzeko eta deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituztela frogatzeko.0} Interesdun guztiek epe barruan aurkeztu zuten eskatutako dokumentazioa eta, hortaz, pertsona horien izendapena egin behar da dagokien eskalan edo taldean, adierazita zein den esleitu zaien lanpostua.

Hamaikagarren oinarriaren arabera, izendatutako pertsonak hilabeteko epe luzaezina izango dute plaza jabetzan hartzeko, izendapena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Azkenik, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeko 71.4 eta 71.5 artikulua aplikatuta, hautaketa prozesua bukatu eta gero, eskatutako baldintzak –hizkuntza eskakizuna barne, nahitaezkoa balitz– betetzen dituzten pertsonak esleitu zaizkie lanpostuak, puntuazioari jarraikiz eta pertsona bakoitzak adierazitako lehentasunak kontuan hartuta. Lanpostu jakin bat lortzeko eskatzen diren baldintzak betetzeak ez du eragotziko interesdunek aukeratu ahal izatea egiaztatutako baldintzaren bat ez daukaten lanpostuak. Esleitutako lanpostuak behin betikoak izango dira, eta lanpostu horiek betetzeko sistemaren bidez lortuzat joko dira ondorio guztietarako.

Era berean, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeko 63.b) artikuluari jarraikiz, EHAA-n argitaratu behar da hautatutako pertsonak karrerako funtzionario edo lan kontratudun langile finko izateko organo edo agintari eskudunak egindako izendapena.

Adierazitakoagatik, bat etorrira errektorearen 2022ko urriaren 20ko Erabakiko hamargarren oinarriak dioenarekin (2019., 2020., 2021. eta 2022. urteetako lan eskaintza publikoei dagozkien hautaketa prozesuen oinarri orokorrak onartzen dituen), eta UPV/EHUko Estatutuak onartzen dituen 17/2011 Dekretuko 181.1.j) artikulua arabera esleitutako ahalmenen babesean, honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENGOA. – Erabaki honen I. eranskinean agertzen diren pertsonak Euskal Herriko Unibertsitateko eskaletako karrerako funtzionario izendatzea, kasuan kasuko txanda eta hautaketa sistemaren bidez aukeratuak izan ondoren.

- I. atala: Gestioko teknikarien eskala
- II. atala: Artxibo, Biblioteka eta Museoetako fakultatiboen eskala
- III. atala: Unibertsitate Gestioaren eskala
- IV. eskala: Artxibo, Biblioteka eta Museoetako laguntzaileen eskala
- V. atala: Administrariaren eskala
- VI. atala: Administrari laguntzaileen eskala
- VII. atala: Menpekoen eskala

BIGARRENA. – Erabaki honen II. eranskinean agertzen diren pertsonak Euskal Herriko Unibertsitateko kategoria profesional eta espezialitateetako lan kontratadun langile finko izendatzea.

- I. atala: I. taldea
- II. atala: II. taldea
- III. atala: III. taldea
- IV. atala: IV. taldea

HIRUGARRENA. – Atzeratzea erabaki honen III. eranskinean agertzen diren pertsonen izendapena, ezin baitzaie egin nahitaezko azterketa medikoa lanerako ezintasun iragankorreko egoeran daudelako. Osasun azterketa hori egingo zaie medikuak alta ematen dienean eta, hortaz, izendapena egingo da azterketaren emaitza ezagutu ondoren.

LAUGARRENA. - Eranskinetako atal bakoitzean, esleitutako lanpostua edo onartutako eszedentzia egoera zehazteaz gain, adierazten da plaza eskuratzeko hautaketa prozesuaren zenbakia (plazaren identifikazioa eta ezaugarri nagusiak dira IV. eranskinean aipatzen direnak).

BOSGARRENA. - Izendatutako pertsonak erabaki honen eranskinetan agertzen diren lanpostuen jabetza hartu beharko dute edo, hala dagokionean, lan kontratu finkoa izenpetu, e-sinadura aplikazioa erabilita. Horretarako, mezu elektronikoa bat jasoko dute sinatu beharreko dokumentuarekin eta aipatutako aplikazioaren bidez sartuko dira, ziurtagiri digitalarekin sinatzeko. Dokumentua behin sinatuta tramitea amaitutzat joko da, eta ez da aurkeztu beharko berriz UPV/EHUren beste instantzia batzuetan.

Lanpostua jabetzan hartzeko epea hilabetekoa izango da, luzaezina, izendapenaren erabakia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita. Dena den, dokumentuak egun hori baino lehenago egon ahal izango dira izendatutako pertsonen eskura.

Sinadurak 2025eko martxoaren 1etik aurrerako ondorio administratibo eta ekonomikoak izango ditu, interesduna lanera lehenengo lan egunean hasten ez den kasuetan izan ezik, horretarako arrazoi justifikatu eta egiaztaturik ez badute. Halakoetan, ondorioak hasiko dira zenbatzen interesduna lanean hasten den egunean bertan.

SEIGARRENA. – Zehaztutako epean plaza jabetzan hartzen ez dutenek edo lan kontratu finkoa sinatzen ez dutenek UPV/EHUko karrerako funtzionario edo lan kontratudun langile finko izateko eskubidea galduko dute, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

ZAZPIGARRENA. – Funtzionario edo lan kontratudun langile finko sartu berriei esleitutako lanpostuak behin betikoak izango dira, eta lanpostu horiek betetzeko sistemaren bidez lortutakotzat hartuko dira ondorio guztietarako.

ZORTZIGARRENA. – Funtzionarioek, erabaki honen kontra egiteko, aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango diote UPV/EHUko errektoreari, hilabeteko epean, erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita. Era berean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar dezakete zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Lan kontratudun langileek, erabaki honen kontra egiteko, lan demanda jar dezakete zuzenean Lan arloko Epaitegian, bi hilabeteko epean, bat etorrita lan arloko jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legeko 69. artikuluan adierazitakoarekin (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak emandako idazketan azken xedapenetatik hirugarrenean).

Leioan, sinadura elektronikoaren datan

UPV/EHUko ERREKTOREA
JOSE RAMON BENGOETXEA CABALLERO